

2 0 2 4

Arrasateko Udal Biblioteka

Gogobetetze inkesta



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Edukia

Sarrera	2
Metodologia	3
Parte hartzea	4
Emaitzak	5

Sarrera


Arrasateko Udal Bibliotekak gogobetetze inkesta bat egin du erabiltzaileen iritzia ezagutzeko eskaintzen dituen zerbitzuei buruz. Ekimen honen helburua da zerbitzuak herritarren beharrei hobeto egokitzea.




Metodologia

Bibliotekako erabiltzaile guztiei zuzendu zaie inkesta, hiru gune hauetako bakoitza ebaluatzeko aukera emanaz: Kultureko helduen biblioteka, Kultureko haur eta gazte biblioteka eta Santa Marinako biblioteka.

Inkesta osatu dute 15 itemek, 0tik 10era puntuatu beharrekoak, eta galdera ireki batek, edozein alderdiri buruzko iritzia askatasunez emateko.



Parte hartzea




Guztira 320 inkesta jaso dira, % 90 bibliotekaren web orriaren bidez eta gainerako % 10 paperean.

Parte hartzaileen % 70ek Kulturateko helduen biblioteka baloratu dute, % 22k Kulturateko haur eta gazte biblioteka eta % 8k Santa Marinako biblioteka.

Emaitzak

Laburbilduz, hauek dira gogobetetze inkestan baloratutako espazioek jasotako puntuazio orokorrak:




Jarraian, planteatutako item bakoitzak lortu dituen puntuazioak aurkeztuko dira.

Instalazioak eta Ordutegia


Instalazioek balorazio orokor altua dute (8,46). Santa Marinako batez bestekoa, dena den, beste bi espazioena baino puntu eta erdi inguru baxuagoa da (7,00).

Ordutegiaren batez bestekoa 8,11 puntukoa da.



Liburuak, Musika eta Pelikulak


Hiru guneetan ondoen baloratu den bilduma liburuena da (8,30). Jarraian datoz, musika bilduma (7,46) eta pelikula bilduma (7,40).



Aldizkariak eta Tokiko bilduma

Aldizkarien bildumak 7,64 puntu jaso ditu batez beste.


Tokiko bildumak, Kultureteko Bibliotekan kokatua, 8,21eko puntuazioa lortu du.



Mailegua eta Kultur jarduerak

Mailegu zerbitzuak (bilduma propioarena, liburutegiartekoa eta kolektiboa barne), inkestako bigarren puntuaziorik altuena lortu du: 8,65.


Kultur jarduerak 8,33ko batez besteko puntuazioa bildu dute.



Azpiegitura teknologikoa eta Web orria eta sare sozialak


Azpiegitura teknologikoak 8,00 puntu jaso ditu batez beste, eta Santa Marinakoa ia puntu eta erdi azpitik dago, 6,58rekin.

Web orriak eta sare sozialek 7,82 puntu lortu dituzte.



eLiburutegia eta eFilm


Bi plataforma digitalek antzeko puntuazioa eskuratu dute, 7,50etik gora.



Liburuzainen profesionaltasuna eta Komunikazio kanalak

Liburuzainen profesionaltasunak 9,07ko batez bestekoa lortu du, inkestako puntuaziorik altuena izanik.

Liburutegiarekin komunikatzeko kanalek 8,64ko batez bestekoa dute.



Galdera irekia

34 lagunek zoriondu dute biblioteka eskaintzen dituen zerbitzuengatik. Gainera, iradokizun hauek errepikatu dira:

KULTURATEKO HELDUEN BIBLIOTEKA

- Ikasgelaren ordutegia zabaltzea.
(6 iruzkin)
- Liburutegia goizago irekitzea.
(4 iruzkin)
- Igandeetan eta oporraldietan irekitzea.
(3 iruzkin)

KULTURATEKO HAUR ETA GAZTE BIBLIOTEKA

- Espazioa handitzea.
(4 iruzkin)
- Komiki bilduma handitzea.
(3 iruzkin)

SANTA MARINAKO BIBLIOTEKA

- Espazioa handitzea.
(6 iruzkin)
- Instalazioak hobetzea.
(4 iruzkin)
- Helduentzako funtsa edukitzea.
(3 iruzkin)
- Ordutegia zabaltzea.
(3 iruzkin)

The background of the slide features a photograph of a building and a set of stairs with a metal railing. The entire image is covered with a semi-transparent blue filter. A large white rounded rectangle is centered on the slide, containing the text.

**Eskerrik asko
parte hartzeagatik**